

EBZ-k aurrez zuen '2 Zutabea' mailako eskakizuna mantendu dio, banku bakoitzari bere arrisku profilaren arabera ezartzen zaion **langa indibiduala**

## **Kutxabank da kapital-eskakizun txikiena duen Bankua SREP ebaluazioaren arabera**

- **%8,2ko CET1 gutxiengo kapital maila ezarri dio 2019. urterako, eta iaiz urte amaieran %16,1ekoa zeuzkan CET1 Ratioan eta 'phased-in' Kaudimen Osoan**
- **Ikuskaritza eskakizunak berretsi dizkio, Europako onenetakoa, eta Taldearen negozio ereduaren sendotasuna agerian uzten du**

**2019ko otsailaren 15ean.** Europako Banku Zentralak egin duen Erakunde Esanguratsuen Errebisorako eta Ebaluaziorako Ikuskaritza Prozesuak (ingelesez SREP), Kutxabank Taldeari 2018. urtean zuen 2 Zutabeko eskakizun maila bera jarri dio, %1,20koa, hau da, banku bakoitzari bere arrisku profilaren arabera ezartzen zaion eskakizun indibiduala, EBZ-k Taldearen arrisku profilari buruz duen iritzi positiboaren erakusle. Gainera, Kutxabankek %1,70etik gora mantendu beharko du bere Kaudimen Osoa 2019ko martxoaren 1az geroztik, eta Europako Banku Zentralak CET1 kalitate goreneko kapitalari jarritako langa %8,2an gelditu da.

Azterketak Europako ikuskaritza profil onenetakoa duen erakundeen artean kokatzen du Kutxabank. Egin zaizkion azterketetan eskakizun-maila mantentzea edo txikitzea lortu du, eta maila goreneko kaudimenean gutxiengo mailaren arabera soberakin handiena duen Bankua da, bere negozio ereduaren erakusle.

Kutxabanken kaudimen indizeek bere ibilbide osoan zehar etengabe hazten jarraitu dute, eta bere ratioak espainiar finantza-sistemako buruan kokatu dira beti. 2018. urte amaieran %16,1 zituen phased in CET1 bertsioan eta Kaudimen Osoan. Erakusle hauek %15,5ekoak ziren 'fully loaded' bertsioan. Ratio hauek aipatutako eskakizunak aise gainditzen dituzte, beraz ez zaizkie mugarik jartzen dibidenduen banaketari edo erretribuzio aldagarriari.

Indize hauen hobekuntza hazkunde organikoan oinarritu da beti, ez baitu laguntza publikoen edo kapital hazkundearen beharrik izan.

<b>GUTXIENGO ESKAKIZUNAK</b>		
<b>MAILA</b>	<b>CET1</b>	<b>KAUDIMEN OSOA</b>

1 ZUTABEA	%4,50	%8,00
2 ZUTABEA (P2R)	%1,20	%1,20
Kontserbazio koltxoia	%2,50	%2,50
Beste koltxoiak	%0,00	0,00%
<b>ESKAKIZUNAK GUZTIRA</b>	<b>%8,20</b>	<b>%11,70</b>

<b>MAILA</b>	<b>Egoera 2018/12/31/</b>	<b>Gutxiengo eskakizuna</b>	<b>Soberakina</b>
CET1 RATIOA ( <i>phased-in</i> )	%16,10	%8,20	%7,90
KAUDIMEN OSOKO RATIOA ( <i>phased-in</i> )	%16,10	%11,70	%4,40